Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero 432

Azaroak 1, 2022

2 Irun atzo, Irun gaur
3 Berri laburrak
4 Kabigorri Bidasoaldeko Ateneoa
5 Bidasoa Zurekin
6 Nayade abesbatza
7 Azaroaren 25a
8 Kirolak: Bidasoa Irun
9 Kirolak: Alba Rodriguez
10 Caser Residencial
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak / Irunabar elkarteko bertso sorta
13 Beti gazte: Dantzari profesionalak
14 iGazte
15 Agenda

"Bigarren postua lortu ostean, hurrengo urtean lehenengo postua lortzeko gogoa piztu zait"

Alba Rodriguez, grappling borrokalaria

Bisitak dituzunean Iparra-Txiki Berri da zure aukera!

4 logela zabal bainugela pribatuarekin

Garaiar kalea, 11, Irun - paxioenea@gmail.com - +34 688 728 554

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

1922ko azaroaren 5ean argitaratutako "El Bidasoa" aldizkariak orain dela 100 urte Irunen albiste ziren gertaerak islatzen ditu. "Ante el peligro de siempre" testuak Madrilen sortzekoa den aduana zentralak Irunen eragin dezakeen kalteaz hitz egiten du. "Pax et labor" testuan berriz, azken udal bilkuran adostutako gaiak azaltzen dira, Urtizberea jaunaren jardute ona goraipatzeko. Satarrka kolaboratzaileak idatzitako "Udazkena" izeneko olerki bilduma irakur daiteke euskaraz aldizkariko lehen orrialdean, Yolek bertso erromantikoen atalerako idatzitako "La tarde está triste" olerkiaren aurretik. Orrialde amaieran udal gimnasio bat eraikitzeko proposamena aipatzen da.

Bigarren orrialdea ohiko kirol kronikarekin hasten da. Batetik, Real Unióneko batzar orokorrean hartutako erabakiak zerrendatzen dira. Ostean, astean zehar eta aldizkaria argitaratzen den egunean bertan jokatzekoak diren partidu garrantzitsuen berri ematen da. "De todo un poco" atalean 1923 urterako aurrekontuaren eraketa, kirol zelaiaren eraikuntzarekin lotutako gorabeherak eta estolderia eta edateko uraren horniduraren egoera aipatzen dira.

Hurrengo testuan aldiz, Irundik kanpo beste aduana bat eraikitzeak hiriarentzat izan dezakeen kalteaz hitz egiten da. "Notas municipales" atalak azken udal bilkurako erabakien laburpena eskaintzen du. "Buzón del Bidasoa" atalean berriz, aldizkariaren erredakzioan jasotako eskariak jasotzen dira. Azkenik, "Noticias" atalean interes orokorreko hainbat abisu biltzen dira, hala nola, gau eta eguneko farmaziak zeintzuk izango diren datozen egunetan, azken egunetan gertatutako ezkontza eta heriotzak edo udal musika bandaren hurrengo kontzertuak.

Argazkia:

38291: Pausutik ateratako udal pospolo fabrikaren eta hiltegiaren argazkia.

38310: Hendaiatik datozen bidaiarien iritsiera Irungo Santiagoko ontziralekura. Atzean, Aiako Harria eta ia eraikuntzarik gabeko Portuko muinoa (eszena 1908a baino lehenagokoa da).

38388: Behobiako errepidea, egungo Juan Thalamas Labandibar kalea. Eskuinean, soro bat ikus daiteke, urte batzuk geroago, Osinbiribil etxea eta udal hiltegia eraiki ziren tokian, eta, haren atzean, Meatze Trenbidearen gaineko pasabidea. Oinezkoak, ziurrenik, inguruko Fosforo Fabrikako langileak dira (XX. mendearen hasierakoak).

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Aitor Lete

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Irungo zinemetan euskarazko filmak ikustea posible da

Irungo Udaleko Euskara Arloak "Zinema haurrentzat" ekimena abiatu du. Zinema ziklo berri honen helburua da haur irundarren artean euskarazko kultur kontsumoa indartzea. Pelikula emanaldiak larunbat eta igande arratsaldeetan egingo dira Ocine Mendibileko zinemetan. Guztira hamar emanaldik osatutako zikloa izango da eta horietaz gozatzeko sarrera doakoa izango da.

Zinema zikloaren zortzi pelikulak euskaraz bikoiztutakoak dira, eta bi film jatorriz euskaraz sortutakoak: 'Orkestra Lurtarra' eta 'Lur eta Amets'. Miren Echeveste Euskara ordezkariaren hitzetan, "Kulturak, kasu honetan zinemak, aukera ematen digu gozamenaren bitartez euskararen normalizazioan aurrera egiteko, eta alde horretatik, oso gustura gaude egitasmo hau antolatu izanarekin".

Doako sarrerak Ocine Mendibilen

Iñigo Gaiton Euskara Arloko teknikariak azaldu duenez zinema zikloko sarrerak dokoak izango dira. "Bost asteburutan emango dira filmak, eta asteburu bakoitzerako doako txartelak ostiral arratsaldetan jarriko dira eskuragarri Ocine Mendibileko leihatilan, 15:30etik 22:00etara", azaldu du Euskara arloko teknikariak.

Emanaldi guztiak 16:00etan egingo direnez, oraindik txartelak geratzen badira, larunbat eta igande horietan 15:30etik aurrera ere jarriko dira eskuragarri. Pertsona bakoitzak emanaldi bakoitzerako lau sarrera hartzeko aukera izango du gehienez. Doan izan arren, antolatzaileek jendeari zentzuz jokatzeko eskatu diote, bakarrik beharrezkoak diren sarrerak hartu daitezen.

Pelikulak aukeratzerako orduan Zineuskadi.eu webgunea hartu dute erreferentzia modura antolatzaileek, eta nabarmendu dute "kalitatezko eskaintza" bat osatzea lortu dutela. Zikloa 8-12 urte bitarteko haurrentzat pentsatua dagoela azaldu arren, teknikariak zehaztu du hori gomendio bat dela, eta adin guztietako irundarrei emango zaizkiela sarrerak.

Programazioa
- Azaroak 5, larunbata: Lur eta Amets
- Azaroak 6, igandea: Space Jam: Aro Berria
- Azaroak 12, larunbata: Ainbo: Amazoniako gerraria
- Azaroak 13, igandea: Ilargirantz
- Azaroak 19, larunbata: Trash
- Azaroak 20, igandea: DC Supermaskoten Liga
- Abenduak 3, larunbata: Tom eta Jerry
- Abenduak 4, igandea: Orkestra Lurtarra

Azaroan ibilaldi antzeztuak egingo dira hiriko hainbat tokitan XVI. mendeko Irun birsortzeko

Azaroan zehar hainbat ibilaldi antzeztu egingo dira hiriko leku esanguratsuenetan XVI. mendean Irungo bizitza nolakoa zen islatzeko. Eszena ibiltari antzeztuen programa Irungo Udalak San Martzialeko 1522ko guduaren V. mendeurrena ospatzeko antolatutako ekimenen barruan kokatzen da. Egitasmo berriaren aurkezpenean Irungo alkate José Antonio Santanok, Ana Galdós historialariak, Ana Pérez antzerki zuzendariak eta Maria Alonso eta Xabier Soret aktoreek parte hartu zuten.

Programaren barruko jardueretako bat Gazteluzar gazteluaren hondarrak birgaitzea da. Bada, alkateak bertan azaldu duenez, "ekimen honi esker, antzeko jardueren bidez trena iritsi zenekoa eta Luis Marianoren Irun gogoratu genituenenean bezala, denboran bidaiatu ahalko dugu, antzezpen historiko baten eskutik". José Antonio Santanok azaldu du urte osoan zehar antolatu diren beste egitasmoekin gertatu bezala, ekimen berri honekin irundarrek 1522ra gerturatzeko "aukera bikain bat" izango dutela, oraingoan XVI. mendeko Irun nolakoa zen hobeto ulertzeko.

Zehazki, XVI. mendeko Irungo eguneroko bizitzari buruzko paseo ibiltariek osatuko dute zikloa. Guztira bost eszena idatzi dira, azaroko larunbatetan hainbat tokitan antzeztuko direnak. Lehen bisitak gazteleraz gidatutakoak izango dira. Lehenengo hirurak azaroaren 5ean izango dira, eta beste biak, azaroaren 12an, 11:00etatik aurrera, toki hauetan: ordena honetan, Junkal plazatxoan, San Juan plazan eta Ama Xantalen ermitan eta Gazteluzar gazteluaren hondarren inguruan. Zehazki, Gazteluzar gazteluaren hondarren inguruan, bi eszena antzeztuko dira, aztarnategian lanak egiten ari baitira.

Euskarazkoak, berriz, azaroaren 19 eta 26an izango dira, 11:00etatik aurrera, leku eta ordena beretan. Gidoiak Ana Galdós historialariak idatzi ditu, eta zuzendaritza artistikoaz Ana Pérez arduratuko da. Gainera, txistulari bandak guduaren garaia girotzen laguntzeko musika joko du.

Ekimen gehiago

Hiriko historiaren eta pertsona ezagunen inguruko beste efemeride batzuk ospatzeko bezala, 1522an gertatutakoa oroitzeko eta horren garrantzia azpimarratzeko, entitateen arteko elkarlanaren alde egin da. Horrela, jardunaldi hauetaz eta Gazteluzar gazteluaren garrantzia azpimarratzeko eta hura kultur baliabide bihurtzeko birgaikuntza lanez gain, aipatzekoak dira dagoeneko gauzatu diren beste proposamen batzuk. Hala nola Exfilna, Espainiako Erakusketa Filatelikoa, zeina Ficoban egin zen. Bestetik, efemeridea oroitzeko irudia sortu da, dirulaguntza deialdi bat sortu da mendeurrenarekin loturiko egitasmoak antolatzen zituzten entitateentzat eta San Martzialeko 1522ko guduaren garaiko musika ziklo bat ere antolatu da azken hilabeteetan.

20 URTE ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Olaizola INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Kabigorrik 25 urte bete ditu kezka partekatuentzako eta aisialdiarentzako habia izaten

Kabigorri Bidasoaldeko Ateneoak 25 urte beti ditu Moskuko bihotzetik bestelako kezkak eta aisialdiaz gozatzeko nahia zuten horiei irtenbide alternatiboak eskaintzen. Ateneoak 25. urteurrena ospatzeko programazio berezia prestatu du Peña kaleko lokalera askotariko publikoa erakarri nahian. Marian Iza Kabigorriko bazkideak egun Kabigorriren egoera nolakoa den azaldu du.

Marian Iza Kabigorrriko kideak onartu du bera ez zela ateneoaren sorreran egon. Hala ere, egun Kabigorriko kidea denak adierazi du sorreran hainbat kolektibotan militantea zen jendeari bururatu zitzaiola Kabigorri baina denborak erakutsi zuen hobe zela espazio ireki bezala funtzionatzea", adierazi du Marian Izak. Kultur proiektu berri honen sorreran bi helburu elkartu ziren. Alde batetik, inguruarekiko kezka eta bestetik, hausnarketarako eta aisialdiaz gozatzeko aukerak areagotzeko nahia.

Izena sorreraren arrazoien eta testuinguruaren adibide argia da. "Sorreran parte hartu ez nuenez ezin dezaket guztiz baieztatu, baina teoria ugari entzun ditut". Uste horietako bat azalduz, Marianek esan du Gorritasuna beti Irunen Mosku bezala ezagutzen den zonaldearekin lotua egon dela. Beraz, uste da espazio hau joera horretako pentsamoldeentzako kabi bat izan dela eta horrela uler daitekeela "kabi" eta "gorri" hitzen arteko lotura.

Hastapen horiek atzean utzita, proiektuak 25 urte irautea lortu du dagoeneko. "Kabigorriren esentzia bere horretan mantendu bada ere, denborak aurrera egin ahala proiektua hobetzeko eta gaurkotzeko irtenbideak bilatu dira". Urteen poderioz gertatutako aldaketak argi eta garbi islatzen du aretoa banatzen zuten panelen desagerpena. "Hasieran panelak erabiltzen ziren taberna eta emanaldi espazioa banatzeko, bezalako espazio bat sortzeko ideia. "Ateneo bat sortzea bururatu zitzaien gustura egoteko eta zirkuitutik kanpo dauden gauzak aurkezteko toki baten bila", azaldu du Marian Izak. Gerora, hirian izaera bera duten beste hainbat espazio sortu badira ere, Kabigorri izan zen horrelako eremuetan aitzindaria.

Bazkidetza sostengu

Ateneoaren funtzionamenduaz galdetuta, Marian Izak adierazi du: "Kabigorri toki irekia da". Hala ere, bazkideek eta tarteka diru ekarpenak egiten dituztenek egindako dohaintzei esker lortzen du aurrera egitea. Ordea, Kabigorriko bazkideak azaldu du ez dela batere espazio ireki bat kudeatzea. "Doako ekintzak eskaini arren, ez da ahaztu behar ekitaldien antolaketak ateneorako gastua dakarrela", gaineratu du Marianek. Aspaldian asanbladan erabaki zuten Kabigorrin ekintzak edo emanaldiak eskaintzen zituzten guztiei ordaintzea. Marian Izak azpimarratu duenez, "hala ere, sarrera beti doan mantendu dugu, uste baitugu, egoera ekonomikoa gorabehera, edonork izan behar duela kulturaraz gozatzeko aukera".

Bizirautea helburu

Gaur egun elkartean 90 bazkide inguru dira, baina Marianek azaldu du jendea ez dela animatzen antolaketan aktiboki parte hartzera. "Pandemia garaia bereziki gogorra izan da Kabigorrirentzat", azaldu du Kabigorriko bazkideak. Izan ere, ateneoaren diru sarrerak zerora murriztu diren bitartean, gastuak izaten jarraitu dute. Kalte ekonomikoaz gain, Marianek uste du pandemiak ohituretan eta aisialdiaz gozatzeko moduetan eragin nabarmena izan duela eta estutasun larri horren ostean, Kabigorri egun egoera ekonomiko larrian dagoela. "Ea zortea dugun eta kinka larri honetatik ateratzea lortzen dugun Kabigorriren istorioa 25. urteurrenarekin amaitu ez dadin", gaineratu du Kabigorriko bazkideak.

Momentuz Kabigorriren erronka nagusia bizirautea da. Marian Izaren hitzetan, "pandemia bera eta pandemia osteko garaia ere oso aldakorrak izan dira Kabigorrirentzat". Pandemiaren ostean, zerbitzari eta sukaldari gabe geratu ziren Sanmartzial atarian eta ez zen erraza izan jaiegunetan lan egiteko prest zeuden ordezkoak bilatzea. "Orain sukaldari berria dugu eta ilusio handia dugu berak proposatzen dizkigun aldaketekin". Zentzu horretan, urriaren 20an tabernan karta berria estreinatu du Kabigorrik, produktu berriak eskaintzeko helburuarekin. Aspaldian egin bezala, KM0, auzoko eta ekoizle hurbilen produktuak erabiltzeko apustua egiten jarraituko dute. "Orain gainera hanburgesak eta patata frijituak bertan egingo dira, kanpotik erdi prestatuak ekarri ordez", azaldu du Marianek jendeak sukalde berria probatzera hurbiltzeko gogoa izan dezan.

Eskaintza aldakorra

Egoera makalean egonda ere, Kabigorriren 25 urteak modu berezian ospatzeko bidea topatu dute. "Buruari buelta asko eman dizkiogu egitarau hau aurkeztu ahal izateko, ez baita batere erraza hainbeste emanaldi eta artista edo kolaboratzaile koordinatzea". Ekintza interesgarriak proposatzeaz gain, Kabigorriren bizitzan zehar ateneoan egindako ekintzen isla izatea nahi genuen. 25 urtean asko aldatu dira Kabigorriko eszenatokian eta aretoan antolatu diren ekintzak. Ekintza asko eta asko aspaldian atzean gelditu ziren eta besteek aldiz, orain topatu dute agur esateko momentua. Hori da Irunbar elkarteko kideek antolatutako bertso saioen kasua, urteurren borobil hau aprobetxatuta agur esango baitiote azken urteetan egindako bertso gauei.

Dena dela, Kabigorrin badira egun arrakasta itzela duten jarduerak. Egun Maindfullnes tailerra martxan dute eta plaza guztiak bete dituzte. Komiki tailerrak ere harrera bikaina du eta egun taldea bitan zatitu behar izan da eskari guztiei erantzun ahal izateko. Gainera, erakusketak egiteko espazioa doan eskaintzen diete, artistek beraiek obrak aurkezteko espazioa izan dezaten. "Datorren urterako 3 erakusketa eskari dauzkagu jada", azaldu du Izak.

Arrakasta orain dela urte batzuk egindako gogoeta prozesuaren emaitza dela esan daiteke. Izan ere, Kabigorrik publiko gutxi erakartzen zuen garai batean galdetegi bat banatu zuten ateneoko bazkide eta lagunen artean nolako ekintzak interesatzen zitzaizkien jakin ahal izateko. "Bakoitzaren interes edo kezkak ezberdinak direnez, ez da erraza oro har gizartearen zati handi batentzat erakargarriak izango diren ekintzak topatzea", azaldu du Marian Izak.

Etorkizunera begira Marian Izak azaldu du Kabigorrik milaka proiektu dauzkala, baina lehentasun nagusia ateneoaren egoera ekonomikoa egonkortzea dela. Jendearen inplikazioa eta auzolana ere funtsezkoak izango dira Moskuko habia guztiz desegin ez dadin.

Bidasoa Zurekin komunitate errukitsuak eskualdeko ongizatea du helburu

Bidasoa Zurekin elkartea 2020an sortu zen Bidasoko ESIan Komunitate Errukitsuen egitasmoan parte hartu ahal izateko. Hasiera batean proiektuaren helburua izan zen eskualdean zainketa aringarriak behar dituzten pertsonak identifikatzea. Montse Pérez García, Amaia Mendizabal Olaizola eta Idoia Lizaso Vaquerok proiektuaren funtsa azaldu dute.

Era honetako proiektuak "bottom up" bezala ezagutzen dia, Osakidetzako langileen egitasmotik sortzen baitira eta denboran irauteko edo sareko gainontzeko entitateetara zabaltzeko asmoa dute. "Bottom up" horren bitartez jaio zen Bidasoa Zurekin eta elkarte forma eman genion. Montse Pérez Garcíak azaldu duenez, "hasiera batean zainketa aringarrietan eskualdeak zeuzkan baliabideak aztertu ziren, era berean, arloko gabeziak identifikatzeko". Azken bi urteetan saretze lan hori egin da, gizartea gaixotasun kronikoekikoen aurrean zainketa aringarrien garrantziaz jabetzeko. Montsek gaineratu duenez, "azken urteetan ikusi da osasun sistema publikoan profesionalak ez garela behar hauek dituzten pazienteen arretaren %5a baino gehiago estaltzera iristen". Beraz, gizarte mailako lanketa eskatzen du horrek, baina ez edonola eginda.

Beraz, esan daiteke Bidasoa Zurekin gabezia orokortu batetik sortzen dela, bai pazienteari zein beraien senideei lagundu ahal izateko. Horregatik, proiektua abiatu ahal izateko, aurretik kontzientziazio eta sentsibilizazio lana egin behar izan dute. Hala, "Death Cafe" bezala ezagutzen diren ekintzak oso baliagarriak dira. Hondarribian Nerea Amunarriz eta Irunen Montse bera arduratzen dira hitzordu horien antolaketaz. Saio horietan 10 edo 15 pertsona inguru biltzen dira heriotzaz hitz egiteko. Berez ez dira doluarentzako edo terapiarentzako espazio batzuk, elkarrekin egoteko espazioak baizik. Hilabetean behin egiten dira saioak, Hondarribian Route 32 tabernan eta Irunen Kabigorri ateneoan. Aurrerantzean eskualdean "Death Cafe" bilerak egin ahal izateko leku berriak lortu nahi dira, jarduera auzo gehiagotara zabaldu eta jendeari gehiago hurbiltzeko. Bilera horiez gain, ikastetxeetan hitzaldiak antolatu ditu elkarteak haurrei eta nerabeei heriotzaz nola hitz egin behar zaien lantzeko. Gainera, CBA liburutegian heriotzarekin loturiko liburuen errepasoa egin da eta eskaintza handitu da. Era berean, Palmera Monteron 7 sentsibilizazio hitzaldi eskaini dira azken urtean zehar. Montse Pérez Garcíak azaldu duenez, kontzientziazio lanarekin jarraitzea da asmoa. Horrela, ezberdinetatik, gerora horien ezaugarrien arabera sailkatu eta balorazioak egiten hasteko. Lizaso erizainak azaldu duenez "pazienteak inguruan duen zainketa sarea ikertzen da, gabeziarik balego, horiek lantzeko". Azkenik, behaketaren bidez benetan pazientearen zainketa hobetzea lortu ote den aztertuko litzateke. Mundu mailan era askotako komunitate errukitsuak daude. Euskadi mailan Euskadiko Komunitate Errukitsuen Sareak (EKES) biltzen ditu lurralde mailako komunitate guztiak eta Bidasoa Zurekin sare horren barnean dago. Gipuzkoan 6 dira komunitate errukitsuak, Bizkaian 3 eta Araban 1. Abenduan EKESko jardunaldiak antolatzen dira Araban. 10 komunitate horietako bik "denak zurekin" metodologia erabiltzen dute, "New Health" fundazioak bultzatua, oso zehatza eta aproposa iruditzen baitzaie.

Esku-hartze komunitarioaren azterketa

Orain esku-hartze komunitarioaren azterketa egiteko proiektu berria hasiko dute eta Idoia Lizaso Vaquero izango da etxez etxeko lana egiteaz arduratuko den erizaina. Erizain arduradunaren hitzetan, metodologia zehatz bat erabiliko da behaketa hori egiteko, "denak zurekin" ideian oinarritua. Lehenengo programan parte hartu dezaketen pazienteak bilatzen dira zerbitzu lehen "botton up"-a orain amaituko dute, bi urteko iraupena baitzuen, eta egindako lanaren memoria aurkeztu behar dute.

Gainera, berriki ikuskatzaile medikuarekin akordio bat lortu dute aurretiazko borondateak egin nahi dituzten horientzat prozesua bizkortzeko. Borondateak idatzita uzteko ikuskatzailearekin bi bilera egin behar ziren orain arte, lehena informatiboa eta bigarrena borondateak idatzita uzteko. Egitasmo honi esker lehen bilera taldekakoa izatea lortu da eta horrela gestioak arinago egin daitezke, baina, beti ere, borondateak idazterakoan intimitateari eutsiz.

Zainketa aringarriak

Zainketen esparrua hobetzen jarraitu ahal izateko horien garrantziaz jabetzea funtsezkoa da. "Oraindik gizartean jende askok zainketa aringarriak heriotza hurbilarekin lotzen ditu", azaldu du etxeko ospitalizazio zerbitzuan lan egiten duen Montse medikuak. "Haurren kasuan, garun paralisia duten guztiek zainketa aringarrien premiarekin identifikatuta egon beharko lukete", gaineratu du medikuak. Horrela, zainketa aringarriak sendaketa ezinezkoa denean erabiltzen dira eta osasun arloko langileek eta, oro har, gizarteak barneratu beharreko kontzeptua da. Amaia Mendizabalek, proiektuaren alderdi administratiboaz arduratzen denak, baieztatu du zainketa aringarriak behar dituzten pazienteak oso berandu identifikatzen direla. "Behin beharrak behar bezala identifikatuta gauza asko egin daitezke, baina helburua zein den argi egon behar du", gehitu du Mendizabalek.

Egun populazioaren % 1ak zainketa aringarriak behar dituela uste da. Bidasoa eskualdea 80.000 biztanlez osatuta dago eta aurretik azaldutako hipotesiaren arabera 800 biztanlek zainketa aringarrien beharra izango lukete. Hala ere, egun Bidasoan 200 pertsona baino gutxiago identifikatuak dituzte behar horiekin, beraz, lan asko egiteko dago oraindik.

Etorkizunerako proiektua

Bidasoa Zurekinek eskualdeko ongizatearen alde jarraituko du lanean. Zainketa aringarrien beharraz ohartarazteaz eta identifikatzeaz gain, beharrezko baliabideak eskatu ahal izateko informazio bilduko du. Gainera, elkartera batu nahi duen edonork horretarako aukera izango du bidasoazurekin@gmail.com helbidera idatzi edo sare sozialetan elkarteak dauzkan profilen bitartez harremanetan jarriz. Horrela, posible izango da gaixotasun kroniko aurreratua duten edo hiltzeko prozesuan dauden herritarren beharrei erantzuten saiatzea. Azken batean, ezinbestekoa izango da horretarako prestatutako komunitatea eta kontzientzia sortzea.

Nayade abesbatzak kantuan ospatuko du 25. urteurrena

Nayade abesbatzako fundatzaileak 1997. urtean

Nayade abesbatzari oharkabean iritsi zaio 25. urteurrena. Emakumeez osatutako kantari taldeak pandemiak eragindako zailtasunak gainditu berritan, koruaren zilarrezko ezteiak ospatzeko ekintzei ekingo die. Alaitz Urkia Nayade abesbatzako zuzendaria da eta Edurne Izagirre berriz, abesbatzaren sorreran parte hartu zuen kantaria. Elkarrizketatuek aurreratu dutenez, dagoeneko prestatuak dituzte datozen hilabeteetarako diskoaren estreinaldia eta beste hainbat kontzertu berezi.

Nolakoa izan zen Nayade abesbatzaren sorrera?
Edurne: Nayade abesbatza duela 25 urte hasi zen beste abesbatza batzuetan abesten genuen neska talde bat abesteko asmoarekin elkartu ginenean. Gabonetan kalean kantatzeko lehen bilera batzuk egin genituen, kide batzuen lokalak horretarako erabiliz. 1997ko Gabonetan Atzokoak abesbatzarekin kontzertua emateko aukera izan genuen. Era berean, Errenteriako Gabonetako Lehiaketan parte hartu genuen eta lehenengo saria irabazi genuen. Urtarrilean federatzea erabaki genuen eta horrela iritsi gara honaino.

Sorreratik emakumeek osatutako abesbatza izan da?
Edurne: Aurretik ere horrela abestu izan genuelako beste abesbatzetan eta oso zaila da hori alde batera uztea. Abesbatza mistoetan emakume askok abesten dute, baina sorreran ez genuen aukera hori planteatu. Beraz, sorreratik emakumezkoen abesbatza bat izan gara eta ahots zuriak.

25 urte hauetan aldaketa asko izan dira taldean?
Edurne: Aldaketa momentuko egoeraren araberakoa izan da. Kontutan izan behar da emakumeak izanda abesbatza sortzerakoan ez genuela seme-alabarik, eta orain gutako asko amak gara. Beraz, ume horiek txikiak direnean ez da hain erraza horrelako afizioetan aritzea. Hala ere, zailtasunak zailtasun aurrera egitea lortu dugu. Musikalki ere aldaketak izan dira, abesbatzako kantari kopuruaren edo proiektuaren arabera.

Pandemiaren oinazea nabaritu duzue?
Alaitz: Bai, egia esan, asko. Pandemiarekin zuzeneko entseguak gelditu eta telematikoki jarraitzeko moldatu behar izan ginen. Murrizketen garaia hasieran uste baino luzeagoa izan zen, guztiak ohi bezala elkartu ahal izan ginen arte. Zaila izan bazen ere, ahalegin handia egin genuen abesbatza mantentzeko.

Edurne: Gainera, berriro entseguak egin ahal izan genituenean, musukoekin egin behar izan genuen eta gure artean metro eta erdiko tartea utziz, beraz, bai, oso zaila izan zen.

Nola ospatuko duzue abesbatzaren 25. urteurrena?
Alaitz: Urteurrena ospatzeko pandemia garaian bururatutako ideiak gauzatuko ditugu azkenean. Abenduan hasiko gara urteurrena ospatzen, justu gure ibilbidea Gabonetan hasi zelako. Hala ere, prestaketa lanak aurreratuak ditugu, jada 25 urteak ospatzeko disko bat grabatzen ibili garelako azken urtean zehar. Diskoa azaroan argitaratuko da eta bere aurkezpenerako kontzertua eskainiko du abesbatzak. Abendutik aurrera hainbat kontzertu egingo dira, gutxi gorabehera urtero egiten ditugunak, baina aurten ukitu berezia izango dute. Zehazki, abenduaren 23an Gabonetako Kontzertua eskainiko dugu Irungo Musika Bandarekin batera. Sanmartzialetan ere gure hitzorduari eutsiko diogu, baina aurten kokapena aldatuko dugu kontzertua bereziagoa izan dadin. Azkenik, 2023ko azaroan urteurrenari amaiera emateko Amaia antzokian kontzertua egingo dugu eta bertan saiatuko gara urte hauetan guztietan Nayaderekin zerikusia izan duten pertsonak biltzen.

Zein da egun Nayade abesbatzaren egoera?
Edurne: 30 bat kantari gara eta esan behar da gehienak ia abesbatzaren hasieratik ezagutzen garela. Giroa oso polita da eta uste dut elkarrekin gauza ederrak egin ditzakegula. 25 urte horiek behar bezala ospatzeko ilusio handia dugu.

Jende gaztea erakartzeko zailtasunak dituzue?
Edurne: Bai, oso zaila da. Gu ere pixkanaka zahartzen ari gara eta abesbatzaren bataz besteko adina geroz eta altuagoa da. Uste dut orain oso momentu politean gaudela, baina jende gaztea oso noizbehinka hurbiltzen zaigu. Horretan eragin izan dezake gure adinaren eta jende gaztearen artean dagoen hutsuneak, tarteko adina duen jendea ere falta zaigulako eta ondorioz, adin saltoa are handiagoa da.

Zeintzuk dira Nayade abesbatzak etorkizunera begira dauzkan erronkak?
Alaitz: Erronka bezala ikusten ditut orain gauden mailan mantendu ahal izatea eta maila berean lanean jarraitu ahal izatea. Dena dela, nire ustez gure erronkarik handiena ilusioa bizirik mantentzea da eta hori lortzeko mila modu bilatu behar dira.

Edurne: Zuzendariak helburu hori badauka, gu bere atzetik ibiliko gara planteatutako hori lortu ahal izateko. Argi dago ilusioa izatea eta hori denboran mantentzea oso garrantzitsua dela. Azken batean, abestea afizio bat da eta hori praktikatzen jarraitzeko motibazio bat izatea funtsezkoa da.

ESTUDIO FOTOGRAFICO GO VER™
Fernando Vergara
argazkilaria
Letxumborro hiribidea 100.2º
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484
www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com

Azaroa morez jantziko da Emakumeen Aurkako Indarkeria salatzeko

Urteko azken aurreko hilabetearen hasierarekin batera, azaroaren 25ean ospatzen den Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna ospatzeko lehen egitasmoak iragarri dira. Hala ere, data hurbildu ahala, Irunen egun horretaz gain, hilabete osoan zehar egingo diren bestelako ekintzak ere jakinaraziko dira.

Alde batetik, Irungo Udaleko Berdintasun arloak kanpaina berezi bat prestatu du "Maitatzea ez da kontrolatzea" leloarekin. Miren Echeveste Berdintasun ordezkariak azaldu du iazko kanpaina nerabeen artean gauzatzen diren genero indarkeriaren lehenengo adierazpideetan zentratu zela. Echevestek aurtengo egitasmoari buruz adierazi duenez, "aurten, kanpainak genero indarkeriaren esparruan gure gizartean helduen artean oso ohikoak diren beste portaera eta jarrera batzuk ere lantzen ditu". Horrela indarkeria mota guztietan pentsatuz prestatutako kanpaina diseinatu du udalak: Indarkeria psikologikoa, ekonomikoa eta bikarioa.

Aurten A25eko kanpaina berritasun batekin dator. Izan ere, informazioa hedatzeko Irungo herritarren arten gehien erabiltzen diren 5 hizkuntzak aukeratu dira: euskara, gaztelera, frantsesa, arabiera eta errumaniera. Erabaki hori hartzeko Berdintasun Ministerioak eta Irungo Udalak genero indarkeriari buruz egiten dituzten inkesten emaitzetan oinarritu dira. Berdintasun ordezkariaren hitzetan, "inkesten emaitzek erakusten dute emakume migratzailea izatea oso arrisku faktore esanguratsua dela indarkeria matxisten testuinguruan". Miren Echevestek azaldu duenez, ikerketek agerian utzi dute Irunera migratu duten emakumeen ia hiru laurden genero indarkeriaren biktima izan dira, edota oraindik ere badirela. Horregatik, azaldu du Berdintasun ordezkariak kanpaina irisgarriagoa egiteko nahia.

Imago agentziarekin batera diseinatu da kanpaina, eta Genero Indarkeriaren kontrako 2017ko Estatu Itunaren bidez finantzatu da, zeina mugarria izan zen botere publikoek genero indarkeria mota guztiak desagerrarazteko jardunean.

Diseinatutako materiala azaroaren 7tik 28ra bitartean zabalduko da. Hiriko kaleetan kartelak jarriko dira, markesinetan eta bide publikoko beste elementu batzuetan, eta kartelak banatuko dira saltokietan eta udal instalazioetan. Era berean, ikastetxeetan eta osasun etxeetan zabalduko da kanpaina. Flyerrak banatzeaz gainera, 2022ko kanpinak beste nobedade bat izango du. Aurten hamabi orrialdez osatutako gidaliburu bat sortu da, indarkeria era askotakoa izan daitekeela gogorarazteko. Emakumeek pairatu ohi dituzten hiru indarkeria mota ohikoenak identifikatzen laguntzeko mezu eta portaerak azaltzen ditu gidak.

Emakumeen kontrako indarkeriaren aurka egiteko mezuak zabaltzeaz gain, Miren Echevestek azaldu du azaroaren 25ean Irunen nazioarteko egun horren ospakizunarekin bat egiteko hainbat ekintza egingo direla. Ekintza horiek definitu eta antolatzeko lanean ari dira orain Irungo Udala eta Irunen feminismoarekin lotura duten erakundeak, laster programazio bateratu bat aurkeztu ahal izateko.

Bidasoaldeko Elkarte Feministaren ekarpena
Bidasoaldeko Elkarte Feministak dagoeneko azaroan zehar emakumeen kontrako indarkeriaren aurka egiteko antolatu dituen ekintzak azaldu ditu. Hilabetean zehar egingo diren ekintza gehienak tailerrak izango dira, tarten bestelako ekintzetarako tartea egongo delarik. Elkartetik antolatutako jarduera guztietarako sarrera doakoa izango da, aretoaren edukiera bete arte.

Guztira, elkarteak antolatutako 4 tailer egingo dira azaroan. Lehena Raquel Calvo Pérezek zuzenduko du eta "Sexualitatea Zahartzaroan. Harremanak" titulua izango du. Hilabetean zehar 5 saio egingo dira hiriko adineko pertsonentzako gune sozialetan. Hitzaldiak arratsaldeko 17:00etan hasiko dira. Azaroaren 4an Anakan izango da, 7an Belaskoenean, 9an Palmera Monteron, 10ean Behobian eta 11n San Miguelen.

Olatz Eizagirrek azaroaren 3an Palmera Montero guneko 2. aretoan "Indarkeria matxista eta arrazista gorputz memoriatik, sendatzeko eta askapen bideak bilatzeko asmoz" hitzaldia eskainiko du. Hitzaldia Palmera Montero eraikineko 4. aretoan egingo da arratsaldeko 19:00etan.

Azaroaren 16an Florencia Savanti Colladoren txanda izango da eta ate irekien jardunaldi bat antolatu du "Norberaren ahalduntzea eta zainketa tailerra" titulupean, Qi gong-a, yoga integrala, meditazioa, mindfulness eta bestelako ekintzak egingo direlarik. Hitzordua Palmera Monteroko 2. aretoan izango da arratsaldeko 18:00etatik aurrera.

Azaroaren 26an aldiz, Rebeca Lestón Valbuenak "Enreda2. Helduei zuzendutako sare sozialei eta indarkeriarekin duten harremanari buruzko tailerra" eskainiko du. Tailerra Palmera Monteroko 2. aretoan egingo da eguerdiko 12:00etan.

Bidasoaldeko Elkarte Feministak ere bestelako ekitaldiak antolatuko ditu hilabete honetan. Berdintasunerako Bidasoaldeko Elkarte Feministaren V. Sariarekin Jaizkibel Konpainia saritu dute eta saria azaroaren 11n banatuko da Palmera Montero eraikineko 2. aretoan 19:00etan. Gainera, azaroaren 4tik 18ra Jaizkibel konpainiaren lorpenak errepasatzeko erakusketa ikusgai egongo da bertan. Bestetik, azaroaren 18an duela gutxi zendutako Rosa Valiente Ortizi omentzeko ekitaldia egingo da arratsaldeko 19:00etan Palmera Montero guneko 2. aretoan.

Aurretik aipatutako egitasmoen bitartez egunen batean Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Egunaren ospakizuna beharrezkoa ez izatea lortzea espero da.

Bidasoa Irun taldearen Europako neurketek Artalekuko mugak gainditu dituzte

Bidasoa Irun Europako txapelketaren maila gorenera iritsi da berriro. Denboraldian zehar Ligako txapelketak Europako partiduekin tartekatu beharko ditu talde irundarrak. Partiduen joan-etorri etengabea erakargarriago egiteko helburuarekin Bidasoa Irun klubak, Denok Bat ostalaritza elkarteak eta Irungo Udalak egitasmo berriak proposatu dituzte. Egitasmoaren izena "Astearteetako ilusioa" da.

Egitasmoa urritik otsailera bitarte egongo da martxan. Horren barnean, Irungo hainbat tabernek eta jatetxek saria bezala afariak eskainiko dituzte. Bidasoa Irunek Europako partiduak dauzkan asteartetan 20:00etatik 23:00etara eskimenera atxikitako tabertan eta jatetxeetan afaltzen duten bezeroen artean egingo da zozketa. Guztira, bi bidaia zozkatuko dira txapelketaren bigarren itzulian etxetik kanpo talde irundarrak jokatuko dituen partiduez gozatzeko. Ekimenera atxikitako tabernek eta jatetxeek bereizgarriak izango dituzte, bezeroek erraz identifikatu ditzaten egitasmoarekin bat egiten duten ostalaritza establezimenduak. "Astearteetako ilusioa" egitasmoaren zozketan parte hatzeko balioko dute bai Bidasoa Irunek Artalekun jokatzen dituen asteartek eta baita etxetik kanpo jokatzen dituen Europako neurketa egunek.

Zozketa martxoko lehen asteburuan egingo da Bidasoa Irun-Barça partidan. Izan ere, aurreko astean, otsailaren 28an, Bidasoa Irunek Artalekun Skanderborg Aarhus taldearen aurka amaituko du Multzoen Fasea. Zozkatuko den asteburua zein izango den erabakitzeko Bidasoa Irunen hurrengo faserako norgehiagoken behin betiko egutegia hartuko da kontuan.

"Astearteetako ilusioa" egitasmora San Juan plaza, Urdanibia plaza, Mendibil eta Arbes inguruko tabernak batu dira momentuz. Hala ere, taberna edo jatetxe berriek egitasmora batu nahiko balute Denok Bat elkartearekin harremanetan jarriz edo cdbidasoa@cdbidasoa.eus helbidera idatziz eman dezakete izena.

Ideiaren arrakasta

Gurutz Aginagalde Bidasoa Irun kirol elkarteko lehendakariak azaldu duenez, aurreko urteetan Bidasoa Irunek ostalariekin hainbat akordio puntual lortu ditu, partidu garrantzitsuetan hiri osora eskubaloi giroa zabaltzeko. Akordio horiek batez ere pandemia garaian gertatu ziren, baina normaltasun berrian ere ostalaritzarekin lotutako egitasmoak mantendu eta indartu nahi dituztela azaldu du Aginagaldek. Bidasoa Irunero presidentearen hitzetan, "Formula gehiagotara irekita gaude, eta jakin badakigu batez ere partidu egunetan San Juan plaza ingurua, Luis Mariano eta Zabaltza plaza direla jende gehien erakartzen dutenak, baina ekimena Irungo auzo guztietako tabernetara irekita dago".

Gurutz Aginagaldek azaldu duenez, "Europan egoteak Irun hiriaren proiekziorako suposatzen duenaz gain, European League Irunen barrena ere egotea nahi dugu". Horrela, presidenteak azpimarratu du ezin dela normaltzat hartu klubak Europa mailan jokatzea. Azken urteetan Bidasoa Irunek hainbatetan Europako txapelketan parte hartu duen arren, Aginagaldek gogoratu du talde gehienentzat oso zaila dela maila horretako lehiara iristea. Bidasoako presidenteak maila horretara iristeko zailtasuna irudikatzeko azken urteetan Europatik kanpo geratu diren ASOBAL Ligako edo Alemaniako eta Frantziako taldeak ikustea nahikoa dela aipatu du.

Horrela, Europako neurketak astean zehar jokatzen direnez, ez dute bere jaiegunetan edo asteburuetan jokatzen diren partiduen adinako arrakastarik izateko aukerarik. Hala ere, Gurutz Aginagaldek horretarako aukera ikusten du. "Urte hauetan jokatu dugun hirietan gure taldeak bizi ahal izan du nola partidu egunetan leihoetan edo saltokietan banderak eta bufandak jartzen dituzten", adierazi du presidenteak. Aginagaldek gaineratu duenez, "goizean goiz lanera edo eskolara joateko etxetik ateratzeko orduan, eguna Artalekun amaituko dugula jakinda, gure Bidasoa Irunekin eta partida Europako txapelketakoa izango dela jakinda, eguna berezia da".

Irungo Udaletik, Borja Olazabal Kirol ordezkariak nabarmendu duenez horrelako egitasmoek Europako partiduak Artalekun bakarrik geratu ordez, hiri osoan etxeko taldearekiko ilusioa zabaltzeko aukera ematen dute. "Zaleek taldearekin egon behar dute eta ekimen hauek hiria girotzen laguntzen dute", adierazi du kirol ordezkariak.

Hasi da norgehiagoka

Bidasoa Irunek dagoeneko EHF European Leagueko Multzo Faseko lehen neurketa jokatu du, Artalekun Águas Santas Milanezaren aurkako partidarekin. Talde irundarrak garaipen sendoa lortu zuen, 35-26 punturekin amaitu baitzen markagailua. Garaipen horri esker Bidasoa Irunek 75. garaipena lortu du. Zifra biribil honetara iristeko ibilbidea 1987ko urrian hasi zen, USM Gagnyren aurka Artalekun lortutako garaipenarekin, eta Europako Kopako finaleko joaneko Badel Zagreben aurkako partida (30-20, 1994/1995) izan du momentu distiratsuena. Horrela, Irungo taldeak orain arte jokatutako 126 partidetatik gehienak irabazi ditu, beste 14 berdinketan bukatu dira, eta gainerako 37ak, galdu egin ditu.

Sarrerak

Bestalde, sarrerak erosteko aukera zabalik dago. Hasierako epea urriaren 18an amaitu bazen ere, Europa abonua erosi ez duten bazkideek prezio berberetan egin dezakete, Bazkide Gunean sartuz eta salgai dauden sektoreetan eserleku bat aukeratuz. Era berean, sarrera solteak aukeratzen dituzten bazkideek 11 euroren truke erosi ahal izango dituzte talde portugaldarraren aurkako lehiarako. Datozen asteetan jarriko dira salgai Europako beste lau norgehiagokak.

Gainera, salmenta orokorra ere aktibo dago. Bazkide ez direnentzako abonuak ere, 20 eta 75 euro artean, eta portugaldarren aurkako lehen jardunaldirako sarrerak, 5 eta 18 euro artean, salgai daude klubaren webgunean.

Alba Rodriguez, grappling borrokalaria:

"Kontua ez da bakarrik zure gorputza prestatzea, zure burua ere entrenatu behar duzu"

Gracie Barra akademiako Alba Rodriguez Munduko Grapping Txapelketan lehiatu da. Txapelketa Pontevedran jokatu zen urriaren 12a eta 15a artean eta 600 lagunek baino gehiagok eman zuten izena horretan parte hartzeko. Akademia irundarreko kirolaria 20 urte azpiko kategorian lehiatu da. Alba Rodriguezek bigarren postua lortu zuen Grappling kategorian eta hirugarren Grappling-Gi izenez ezagutzen denean. Klub irundarreko kirolariak txapelketa nola bizi izan zuen kontatu du.

Pozik zaude munduko txapelketan lortutako emaitzekin?

Bai, oso pozik. Bai emaitzengatik alde batetik eta baita esperientzia hau bizitzeko aukera izateagatik ere, oso polita izan baita.

Zenbat denbora eskaini diozu txapelketa honen prestaketari?

Udara osoa eman dut txapelketarako entrenatzen. Egunero entrenatu dut. Adibidez, astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan nire akademiako klaseetara joaten nintzen. Asteartetan eta ostegunetan aldiz, gimnasioan ibili naiz. Hala ere, hori ez zen nahikoa maila honetako txapelketa bat prestatu ahal izateko, beraz, bi hilabete lehenago topera entrenatzen hasi nintzen, egunero bi edo hiru entrenamendu egin ahal izateko. Gogorra izan da, bai. Klase arruntek 2 orduko iraupena dute eta ondoren, nire entrenatzailearekin geratzen nintzen zaku batekin, entrenatzaileak atzetik goma elastiko batekin tiratzen zidan bitartean eta orkatiletan pisuak neuzkala errepikapenak egiteko. Entrenamenduak ia hilik amaitzen nituen, ia arnasa hartu ezinik. Ezinbestekoa da sentsazio horretara ohitzea borroka bat amaitzen duzunean horrela sentituko baitzara, baina ez da erraza.

Nabaritu duzu munduko txapelketako maila normalean baino altuagoa izan dela?

Bai. Izan ere, kontua ez da bakarrik zure gorputza prestatzea, zure burua ere entrenatu behar duzu eta hori da zailena niretzat. Zure buruan konfiantza izan behar duzu eta erraza dirudien arren, ez da hain erraza.

Beraz, presiopean lehiatzen ikasten duzue?

Noski. Zaila da, baina ez dago beste aukerarik eta egin beharra dago.

Nola joan zen Pontevedran jokatu zen txapelketa?

Kontutan izan ni orain arte frontoietan egiten diren txapelketa txikietan lehiatu izan naizela, lurrean botatako lau koltxoneten gainean. Orduan testuinguru aldaketa sekulakoa izan zen niretzat, bat-batean sekulako montajearekin topatu nintzelako han. Giroa oso ona izan zen, esperientzia nire antzeko mutilekin eta neskekin partekatu dudalako. Borroka batzuk besteak baino hobeto atera zitzaizkidan eta nabaria da maila horretako txapelketetan oraindik esperientzia gutxi daukadala. Otsailean Espainiako Txapelketa irabazi nuen eta hortik mundialera pasa naiz, beraz, alde handia nabaritu dut. Uste dut oraindik askatasun gehiagorekin mugitu naitekeela nire benetako borroka maila erakutsi ahal izateko eta hori esperientziarekin ikasten da bakarrik. Txapelketan asko nabaritu nuen nire ohiko entrenatzailea atzean ez izatea, Espainiako Selekziokoa etorri zelako nirekin.

Hala ere, lortutako emaitzekin pozik egongo zara, ezta?

Hori da. Kimonorik gabe bigarren postua lortu nuen eta hirugarrena kimonoarekin.

Horrela, uste duzu hurrengo erronkei aurre egiteko esperientzia irabazi duzula?

Bai, adibidez, bigarren postua lortu ostean, hurrengo urtean lehenengo postua lortzeko gogoa piztu zait. Hurrengo denboraldia 20 urtez azpiko kategorian lehiatuko naizen azken urtea izango da niretzako eta ahal bezainbeste aprobetxatu behar dut.

Uste duzu zure lorpenak Irunen kirol honekin lotutako erreferenteak sortzeko balio dezakeela?

Nire akademian maila oso altua duten lehiakideak dauden arren, egia da ni izan naizela Espainiako Selekzioarekin batera lehiaketa batean borrokatzea lortu duen lehenengo pertsona. Beraz, uste dut arrazoi horregatik nire izena hor nonbait idatzita geratuko dela.

Kirol gutxitua izanda, erreferenteen sorrera garrantzitsua da?

Bai, nahiz eta egia esan, kirol hau geroz eta ezagunagoa egiten ari da. Esaterako, Espainiatik kanpo oso kirol ezaguna da. Hemen ordea, pixkanaka ikusten da lehiaketen maila geroz eta altuagoa dela.

Iruditzen zaizu zure lorpenak akademiara jende gehiago erakarri dezakeela?

Bai. Esaterako, Gracie Barran 15 eta 16 urte arteko gazte asko daude eta pentsatzen dut beraientzat nire lorpenak motibazio bat izan daitezkeela. Argi ikusi dut lehiatzeko eta horrelako esperientziak bizi ahal izateko gogoa sartu zaiela. Batzuek Espainiako Txapelketan parte hartu zuten, baina lehen postua lortu ez zutenez ezin izan zuten maila altuagoetan lehiatu. Uste dut hurrengo urterako gehiago entrenatuko dutela eta irabazteko aukerak izango dituela batek baino gehiagok.

Zeintzuk dira zure hurrengo erronkak?

Nire helburu nagusia hurrengo urteko mundialean lehiatzea da, baina horretarako datorren urteko Espainiako lehiaketa irabazi beharko nuke. Beraz, epe motzean Espainiako Txapelketa da nire helburua, baina tartean sortzen diren beste edozein txapelketetan parte hartzeko asmoa dut, esperientzia hartu eta ahal bezain beste borrokatzeko. Etorkizunean kirol bera praktikatzen jarraitzeko aukerekin ikusten naiz. Printzipioz entrenatzen eta txapelketetan parte hartzen jarraitu nahi dut, baina uste dut nire akademian egunen batean irakasle izatera ere iritsi naitekeela.

Caser Residencialek mugaz gaindiko proiektuekiko konpromiso gero eta handiagoa du

Argazkiak: Hendaiako Herria.

Gero eta handiagoa da Caser Residencialek mugaz gaindiko proiektuekiko duen konpromisoa. Egoitzaren mugaz gaindiko harremanak 2015ean hasi ziren Pirinio Atlantikoetako administrazioarekin elkarlan akordioa sinatu ostean. Horrela, hitzarmenaren ostean Iparraldeko eta Hegoaldeko egoitzek harreman jarraitua mantendu dute. Gainera, mugaz gaindiko proiektuez eta elkarlanez gain, Caser Residencialek ikerketa proiektuetan ere hartu du parte.

Esaterako, hitzordua sinatu zenetik Caser Residencialek urtero urrian Frantzian estatu mailan ospatzen den "Aste Urdinean" parte hartzeko aukera izan du. Jardunaldi horren barnean adineko pertsonentzako jarduerak egiten dira. Caser Residencialek bi eratara parte hartzen du Aste Urdinean. Batetik, partner moduan ekarpenak eginez eta, bestetik, Caserreko Anakako eta Betharrameko egoiliarrekin antolatzen diren ekintzetan parte hartuz.

Aurreko urteetan Aste Urdineko jarduerak mugaren bi aldeetan antolatu izan dira, baina aurten ordea ekintza guztiak Iparraldean egin dira, urriaren 2tik 7ra. Antolatutako ekintzen artean, besteak beste, aretoko dantzen saio bat eta pic-nic itxurako bazkari bat partekatzeko aukera izan dute egoiliarrek eta Betharrameko egoiliarrek parte hartu zuten bertan. Gainera, bazkari horrek txarangak girotutako karaokea ere izan zuen. Aste horretako asteazkenean berriz, Anakako egoitzako egoiliarrek Hendaiako egoitzan baserri mugikor batez gozatzeko aukera izan zuten aire zabalean, animaliak eta guzti. Jardueran, adineko egoiliarrez gain, haurrek eta beraien senideek parte hartu zuten. Horretaz gain, Aste Urdinaren barnean beste hainbat jarduera ere egin dira, antzerkiak adibidez.

Mugaz gaindiko bestelako proiektuak

Aste Urdinaz gain, Caser Residencialek mugaz gaindiko belaunaldi arteko bestelako proiektuetan parte hartzen du. Aurten Hendaia eta Biriaturekin elkarlanean arituko dira egoitza, ludoteka eta haurtzaindegiekin proiektu partekatuak sortzeko. Zehazki, Betharrameko egoiliarrak haurtzaindegiekin partekatutako proiektuak izango dituzte eta Anakakoak berriz 2 ludotekekin arituko dira lanean.

Caser Residencialeko ordezkariek horrelako egitasmoen garrantzia azpimarratu dute. Izan ere, urteak dira mugaz gaindiko ekintza partekatuak antolatzen hasi zirenetik eta ondorioz, mugaren bi aldeetako egoiliarren artean harreman estua sortu da. Beraz, egoiliarrek horrelako egitasmoak eskatzen dituzte mugaren beste aldeko lagunak ikusi eta elkarrekin bizipenak partekatu ahal izateko. Izan ere, jatorrizko herrialdearen arabera egoiliarrek esperientzia ezberdinak bizi izan dituzte eta interesgarria da beraien artean horiek partekatzeko aukera izatea.

Mugaz gaindiko izaeran sakontzen

Gainera, berriki Caser Residencialek Frantzian Zaintzaileen Astearen barnean antolatutako ekintzetan ere hartu du parte. Zehazki, Caser Residencialeko harreman institzionaletako arduraduna urriaren 10ean Ziburun eta 11n Miarritzen egindako jardunaldietan izan zen, hegoaldeko egoitzek iparraldeko biztanleentzat eskaintzen dituzten zerbitzuak mugaren beste aldean aurkezteko. Jardunaldi horietako programa finkoa izan da, hau da, egunez egun errepikatu da, baina ekintzak egun bakoitzean Frantziako estatuko hainbat herri edo hiritan egin direlarik. Parte hartze honen bitartez Caser Residencialek mugaz gaindiko presentzia areagotzea lortu du.

Dirulaguntzak eskuratzeko aukera

Pirinio Atlantikoekin sinatutako akordioak mugaz gaindiko proiektuetan elkarlana sustatzeaz gain, iparraldeko biztanleei diru-laguntzak jasotzeko aukera zabaltzen die Caser Residencialek eskainitako zerbitzuak erabiltzeagatik. Izan ere, mugaren beste aldeko biztanleek eguneko zentroetara etortzeagatik eta egonaldi motzak egiteagatik APA dirulaguntzak jasotzeko aukera dute. Diru laguntza jaso ahal izateko ezinbestekoa izango da erabiltzaileak etxez etxeko zerbitzu plan bat onartua izatea.

Iparraldeko biztanleentzat Caser Residencialek eskaintzen dituen zerbitzuei buruzko zalantzak argitu edo informazioa eskatzeko telefono zenbaki honetara deitu dezakete interesatuek: 628 557 309.

IRUNGO LA SALLE LH1

DENBORA-PASAK

7 hitz: Gau beltza

S	K	K	N	I	X	J	C	U	G	K	J	E	U
M	A	N	Y	Q	O	S	P	A	K	I	Z	U	N
F	N	O	V	N	F	B	E	L	D	U	R	F	Z
N	D	M	F	Q	Z	C	C	K	V	L	G	Z	I
V	E	W	A	V	U	M	B	G	P	I	T	A	B
L	L	R	P	F	M	S	W	D	C	D	U	Q	A
B	A	W	U	J	E	S	M	P	L	A	S	F	D
A	H	S	J	U	N	U	A	Y	O	D	G	Q	K
S	N	T	O	B	S	A	R	I	M	A	S	L	M
E	A	M	O	Z	C	F	S	F	Y	N	Q	W	V
R	G	H	G	H	W	Q	T	E	A	H	Y	K	F
R	S	V	J	R	D	N	O	C	D	Y	Q	N	L
I	T	J	A	I	A	L	L	G	R	J	Z	F	Z
C	K	R	P	N	M	I	O	X	S	A	N	T	U

Kandela, santu, beldur, jaia, ospakizun, arima, baserri.

	7			2			3	
9		6						
	8	2	7	1			4	5
	1	5			2	9		3
	2		9					
6		9			3	2	5	7
4		7						
	3	1					9	2

mr electric systems ®

Electric Systems-ekin zerbitzu elektriko guztiak eskura izango dituzu

- Instalazio elektrikoak
- Neurrira egindako argien azterketak
- Domotika eta automatismoak
- Bideozaintza eta alarmak
- Ahotsa eta datuak
- Proiektuak eta legeztatzeak
- Mantentze lanak
- Ekitaldiak

mrelectricsystems@gmail.com - 669 302 312

2020ko maiatzak 03ko whatsap-tik

Egilea: Andoni Zelaia Otaño

Doinua: Alduderi begira

1
Udaberri usaina
barazki labore,
fruituaren aurretik
sortzen zaion lore
mendian urrunera
berezko kolore,
polita jarraitzeko
kapaz da gerore.

2
Konfinamenduari
zen antitesia,
berritzulerarako
ezin ikasia,
etxetikan bertsotan
txalo garrasia,
egunero berrituz
adore dosia.

3
Ikasgai bat gehiago
bakoitzan jarrera,
itxialdi bateko
bertsoen karrera,
egonezinak kezkak
kanpora atera,
aparte egonarren
nolabait batera.

4
Egoerak bultzata
iritxi hontara,
bakoitzaren lexiko
bakoitzan erara,
bertsoen bertsioan
saiatuaz ara,
bertso banakin hasi
eta bertso sortara.

5
Etxetar izan edo
etxea kaiola,
ezezaguna zena
tokatzen zen rol-a,
inguru dena geldi
beldurrez dagola,
norbanakoentzako
izan da eskola.

6
Ordubeteko bira
eman eta gero,
berriro bertsoekin
hartzeko endredo,
goizeko Txen sortari
erantzunez edo,
baina sorta lortzea
ez nuen espero.

7
Bertso filosofian
hitza jolas bada,
drogatzen gaitu edo
hau ez da normala,
ximurtzen hasia dut
iada betazala,
elkarri enbidoka
musean bezala.

8
Deseskalada dator
edo desegite,
normaltasuna edo
sisteman destripe,
zuzendu behar dira
zenbait hutsegite,
askatasun gosea
sentitzen dut nike.

9
Ea elkartzen garen
egunen batean,
mendi punta batetik
edo elkartean,
mahai baten ondoan
platera betean,
bertsotan aurrez aurre
eta bapatean.

HIRUBIDE DBH1

Lehenengo mailako zenbait ikasle, Txingudiko paduretara gerturatu dira inguru horren egoera zein den aztertzeko asmoz.

Bertako uren azterketa kimikoa egin ondoren, **AZTERKOSTA PROGRAMA**ra bidaliko ditugu jaso ditugun datuak.

Modu honetan, gure zentroak ere, urtero osatzen den Euskadiko kostaldeko uren egoera jasotzen duen datu-basean gure ekarpena egiten dugu.

DBH1eko IKASLEAK

Dantzari profesional bezala lan egiteko ametsa egi bihurtzen denean

Argazkia: Pablo Alzaga

Sarai Santanok eta Maria Basurcok esan dezakete dantza beraien ogibidea egiteko bidea topatu dutela. Duela gutxi Aitana Ocaña abeslariarekin eszenatoki gainean dantzan aritu dira bira amaierako emanaldietan. 15.000 pertsonen aurrean dantzarekiko zelako pasioa duten erakutsi dute Basurco eta Santano dantzariek.

Nola hasi zineten dantzaren munduan?
Sarai: Ni txiki-txikitatik hasi nintzen dantzan, 10 bat urte nituenean. Hasieran ez zen nire nahia izan, baina nire bizilagunek dantza egiten zutenez, amak egun batean beraiek ikustera eraman ninduen eta orduantxe animatu nintzen probatzera. Lehen eskola hartatik orain arte, 30 urte ditudala, ez diot dantza egiteari utzi.

Maria: Nik berriz, txikitatik Hondarribiko Pilar Peñaren akademian dantza klaseak jaso ditut. 18 urte bete nituenean Madrilera joatea erabaki nuen 180 dantza akademian trebatzeko.

Erraza izan zen dantzaren munduan erabaki profesionala hartu nahi izatea?
Maria: Nire kasuan, batxilergoa amaitzean selektibitatea egin nuen, baina oso ondo jakin gabe zer egin nahi nuen. Amak animatu ninduen dantzaren munduan probatzera, eta horrela erabaki nuen pausoa ematea. Nire ustez, nolabaiteko beldurra eman dezakeen erabakia da, ez baita oso aukera arrunta. Baina behin erabakia hartuta, aurrera egin eta probatzea da kontua, beti baitago beste gauza batzuk egiteko astia. Oraingoz oso pozik nago orduan hartutako erabakiarekin.

Sarai: Egia esan, bai, bat-batean oso argi ikusi nuen eta. Sentitzen duen guztiarekin oso leiala den pertsona bat naiz, eta zorionez beti izan dut gurasoen laguntza. Hasiera batean, ez zen nire asmoa, ni magisteritza ikasten ari bainintzen, baina azken urtean erabat argi ikusi nuen. Ilusio handiz hartutako erabakia izan zen, nahiz eta gero oso bide gogorra izan.

Polita izan arren, dantzaria izatea lan gogorra da, ezta?
Sarai: Lan gogorra da. Fisikoki sasoi onean egon behar duzu beti, elikadura zaindu eta neurtu etagorputza ere asko zaindu behar duzu. Fisikoki eta mentalki nekagarria da, gorputzarekin lan egiten duzulako, baina, era berean, buruan piruetak, dantza urratsak edo koreografiak gorde behar dituzulako. Oso bokaziozkoa iruditzen zait, oso sakrifikatua baita, baina sakrifikatua bezain polita da.

Maria: Dantzaria izateko, oso garrantzitsua da guztiari arreta eskaintzea. Ikasten jarraitu behar duzu, sasoian mantendu, ondo jan, ateseden hartu, etab. Azkenean faktore asko dira eta denak dira garrantzitsuak.

Nola izan da Aitanaren mailako abeslari batentzat dantzatzea?
Sarai: Bira irailaren 22an amaitu genuen eta esango nizuke gaur arte nire bizitzako esperientziarik politenetakoa izan dela. Prozesua oso polita izan da koreografoarekin, taldekide guztiekin, Aitanaren taldearekin eta Aitana berarekin batera. Beraiei esker dena oso erraza eta ederra izan da. Oso polita izan da hainbeste jenderen aurrean dantza egin ahal izatea, zale amorratuak baitira, eta kontzertua nola bizitzen duten ikustea. Oso polita da atzetik ikustea nola 15.000 pertsona elkartzen diren linternak pizteko, berak balada bat kantatzen duen bitartean. Betetako ametsa da, eta ezinezkoa da azaltzea.

Maria: Nik atsedenerako astetxo bat hartu dut azken aste hauetan bizi izandakoaren ondoren. Egia esan, ez nuen uste inoiz horrelako zerbait egiteko aukerarik izango nuenik. Antzerkietan eta antzeko gauzetan dantzatuko nuela uste nuen. Baina hainbeste jenderen aurrean eta artista ezagun batekin dantza egiteko aukera izatea iragana izan da. Denok gozatu dugu eta amets bat izan da.

Gainera, kasualitatez, ikuskizun berean bat egin duzue euskal dantzari askok, ezta?
Sarai: Bai, super berezia izan da, izan ere, elkarrekin dantzatu dugun 5 dantzarietatik 4 euskaldunak gara. Maria Basurco, adibidez, lehenagotik ezagutzen nuen, nahiz eta ordura arte ez genuen oso harreman estua. Beti ilusionatzen zaitu jende ezagunarekin lan egin ahal izateak, eta are gehiago gu bezala ia toki berdinean jaio bazara.

Nola prestatzen da dantzari bat maila honetako ikuskizunetan lan egiteko?
Maria: Nik ekainean amaitu nuen nire prestakuntza, eta ordura arte eskolen errutina zehatz bat nuen, tartean proiekturen batean edo bestean parte hartu arren. Orain, nire kontu klaseen, hautaketa proben eta entrenamenduen errutina aurkitzea tokatzen zait. Hala ere, noizean behin atsedena hartu behar da, energia asko gastatzen delako eta beti pilak kargatuta izan behar direlako.

Pixkanaka bada ere, garrantzia hartzen ari al da dantzariek egiten duten lana?
Maria: Lehen dantzariek artistari lagundu besterik ez zuten egiten. Orain, gure kasuan, guztiak ikuskizunaren parte izan gara, talde handi bat osatuz. Aitanak, logikoki, protagonismo handia zuen arren, ikuskizun guztia taldeko lanaren emaitza izan da. Guretzat hori oso atsegina izan da.

Sarai: Nabaritzen da pixkanaka dantzariek pisu handiagoa dutela eszenan. Jada ez da lehen bezala, alde batetik abeslaria zegoen eta dantzariek eszenatokia betetzeko baino ez zuten balio. Dantzariaren irudiak pisu handiagoa hartu du eta emanaldi osoaren parte da. Dantzariekin edo dantzaririk gabe ikuskizunak asko aldatzen dira, eta dantzariei egiten duten lana aitortu behar zaie. Agertokian egindako lan guztiaren zati txiki bat baino ez da ikusten, eta horregatik da garrantzitsua hori baloratzea. Horregatik, oso pozik gaude dantzari gisa jendea gugan ere erreparatzen hasi delako.

Zer asmo dituzue etorkizunari begira?
Sarai: Oraintxe bertan ez daukat beste lanik begi-bistan, beraz, betiko errutinara itzultzea tokatzen da. Hau da, sortzen diren castingetara aurkeztea, adibidez, baina ni beti egoten naiz guztiz irekia era askotako proposamenak jasotzera, ez baitut asmo finkorik. Mundu honek horrela funtzionatzen du, dena oso ustekabekoa baita, ezer ez edukitzetik bat-batean ikuskizun berri baterako kontratatu zaitzaketelako. Beraz, oraingoz opor txiki batzuk hartzeko aprobetxatu dut.

Maria: Oraingoz pixkanaka gauza berriak probatzen joan nahi dut. Egia esan, ez nuen espero egun batetik bestera horrelako aukera bat lortzea eta gertatu da. Honen ostean, irekita nago iritsi ahal zaizkidan proiektu guztiak aztertzeko. Egia da asko gustatuko litzaidakeela dantza konpainia garaikideren batean lan egin ahal izatea eta, etorkizunean, nire konpainia sortzea. horretarako, pixkanaka joan behar da.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

CBA Kultur Gunea
943 50 54 44
igazte@irun.org
607 77 11 73
www.irun.org/igazte

Padel txapelketa

Konekta zerbitzuak plan berri bat proposatzen du: Padel txapelketa.

Bikoteka jokatuko den txapelketa izango da eta bertan parte hartzeko 18 urtetik gora izatea beharrezkoa izango da. Izen-ematea doakoa da.

Txapelketa azaroaren 12an jokatuko da Padel Indoor Bidasoan, arratsaldeko 16:00etan hasita eta 20:00ak arte.

Sariak egongo dira, beraz, animatu zaitez!
Izena emateko epea urriaren 25etik azaroaren 9ra egongo da zabalik.

Informazio gehiago nahi baduzu, 656794372 zenbakira, konekta@irun.org helbidera edo @gazteartean_irun Instagram kontura idatzi dezakezu.

KZ Guneko ikastaroak

KZgunean, zure premietara eta interesetara egokitzen diren ikastaroen aukera zabala dute. 60 ikastaro baino gehiago dituzte beren katalogoan, kategoria eta modalitateen arabera sailkatuta eta zein gailutarako diren bereizita; segurtasunari eta enplegua bilatzeari buruzkoak dira batzuk, eta badira sare sozialei eta tresna ofimatikoei buruzkoak ere.

Ez dakizula nondik hasi? Bada, kontsultatu prestakuntza ibilbidea, hor ikusiko baituzu zer kategoria mota egokitzen zaizun, zure maila teknologikoa eta zein gailutan trebatu nahi duzun kontuan hartuta.

Behin zer kategoria interesatzen zaizun erabakitzean, sar zaitez prestakuntza eskaintzan, eta ikusi KZguneak eskaintzen dizkizun ikastaro guztiak.

Irungo KZgunearekin harremanetan jarri nahi baduzu deitu 943 023 656 telefono zenbakira edo idatzi tutor.irun@kzgunea.net helbidera.

Martindozenea Gaztelekuko programazioa

Martindozenea Gaztelekuak hilero prestatzen du programazio berezia.

Azaroak 2: Topagunea.

Azaroak 3: Txokolatezko tarta.

Azaroak 4: Topagunea.

Azaroak 5: Partxisa 3. adinekoekin.

Azaroak 8: Kirol arratsaldea.

Azaroak 9: Hache Art: Studio Galeria.

Azaroak 10: Kalabazin purea.

Azaroak 11: LGTBIQ+ Lamiaren Oihua.

Azaroak 12: Futbolin txapelketa.

Azaroak 15: Kirol arratsaldea.

Gaztelekuan egingo diren ekintzei buruzko informazio gehiago lortzeko kontsultatu www.irun.org/gazteleku webgunea edo idatzi 690706471 Whatsap zenbakira.

Horretaz gain, ideiaren bat baduzu edo tailer edo jardueraren bat antolatzeko interes berezirik baduzu, hurbildu Gaztelekura edo jarri gurekin harremanetan (whatsApp, email edo telefono bidez) eta konta iezaguzu zure ideia!

Gazteartean Expo - Emilie Filgueira

Martindozenea Gaztelekuan Emilie Filgueirak sortutako "El color de tu mirada" erakusketa ikusgai dago urriaren 29tik abenduaren 3ra. Emilieren lanak @filgueirart eta @emilie_fm Instagram profiletan eta www.filgueirart.com webgunean ikusi daitezke.

Erakusketa honetan, Emilie Filgueiraren hainbat lan ikusi ahalko dira, FilgueirArt izen artistikoarekin. Bi lan ildo bereizten dira erakusketan, jatorri bera izan arren, euskarriaren aldetik guztiz ezberdinak izango direnak.

Emiliek pertsonen erretratuak egiten ditu, horietako batzuk pertsonaia famatuenak, baina kasu bakoitzean xehetasun txikiei jartzen die arreta, mugikortasuna eta dinamismoa izan ditzatela saiatuz. Zuria eta beltza oso gustuko izan arren, kolorearekin asko esperimentatzen du eta paper gainean egiten du lan guztia.

Bere proiektuaren beste lan ildoak gorputza euskarri gisa erabiltzen du, azalean oinarrituz bere irudimena eta fantasia garatzeko. Hau da, bodypainting bezala ezagutzen den teknika. Horrela, Emiliek bere beste zaletasun bat osatzeko espazio bat aurkitu du: argazkigintza.

Erakusketa honetan, A4 formatuko irudi eta erretratu originalak eta Bodypainting teknika erabiliz egindako lanen A4 eta A3 tamainako argazkiak ikusi ahalko dira. Guztira 25 lan aurkeztuko ditu.



AZAROAREN

3an

Zure abenturaren bila

Zer: «Egun on Capitan» filma proiektatuko da Zure Abenturaren Bila programaren barruan.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:30ean.

Sarrera: Doan.

Hizkuntza: Euskaraz.

Oharra: Maite Zumarraga Uribesalgo eta Idoia Rubial Elorza protagonistak ere bertan izango dira eta aurkezpen txiki bat egingo dute.

3an

Enpleguaren Astea

Zer: Enpresa pribatuek, aldi baterako laneko enpresek, enplegu-zerbitzuek eta enplegu-eskaintzak dituzten eskualdeko beste erakunde batzuek, behar dituzten lan-eskaintzetan interesa duten pertsona guztien CVak jasoko dituzte.

Non: Ficoban.

Ordutegia: 9:00etaik 13:30era.

Sarrera: Doan.

5ean

Bertsolari Txapelketa Nagusia 2022

Zer: Finalaurrekoetako lehenengo itzuliko hirugarren saioa jokatuko da Irunen.

Non: Ficoban.

Ordua: 17:00etan.

Sarrerak: bertsosarrerak.eus webgunean.

Prezioa: 17 euro.

6an

Musika

Zer: Quique González madrildarrak "Sur en el valle" disko berria aurkeztuko du.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrerak: Sarreren salmentarako webgunean, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

Prezioa: 10 eta 15 euro artean.

12an

Opera

Zer: "La hija del regimiento" G.Donizetti.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrerak: Sarreren salmentarako webgunean, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

Prezioa: Sarrera orokorra 32,90 euro, bazkideentzat 25,90 euro eta gazteentzat 5,90 euro.

13an

Behobia-Donostia lasterketa

Zer: 57. Behobia-Donostia lasterketaren irteera.

Non: Behobiatik

Ordua: 9:30etik aurrera.

Oharra: Lasterketaren irteera dela eta, hirian hainbat trafiko mozketa izango dira goiz horretan zehar.

Denbora-pasen emaitzak



1	7	4	5	2	6	8	3	9
9	5	6	8	3	4	7	2	1
3	8	2	7	1	9	6	4	5
7	1	5	4	6	2	9	8	3
8	2	3	9	5	7	1	6	4
6	4	9	1	8	3	2	5	7
4	6	7	2	9	5	3	1	8
5	3	1	6	7	8	4	9	2
2	9	8	3	4	1	5	7	6

all4móvil

Prezioak konparatuko ditugu zure ordez

Lortu tarifarik onena telefonia mugikorrean, finkoan, interneten eta telebistan

Puiana kaleko 30. zenbakian gaude!
652 11 85 97 / 843 63 08 80
all4movil@all4movil.com